

# Brigada Moreak

## Ondarroako jaiak busti ditu olatu moreak

Udarekin batera heldu dira auzo, herri eta hirietako jaiak. Sarri, urtean zehar mantendutako erritmo eta errutinetatik ihes egiteko abagune bezala hauteman ohi diren arren, festak ez dira ez ihesbide ezta jendartetik at dauden bake gune. Jaietan ere jendarteko gatazkak eta desparekotasunak islatzen direnez, askotan ez dira izaten denontzat plazer eta poz iturri.



**Amaia Lekunberri Ansola**

@alekunberriansola

IRUDIA: OTSEMEAK

Miren Guilló ikerlari feministak *Festak, genero-harremanak eta feminismoa* lanean azaltzen duenez, “subertsioz eta plazerez ehundutako harremanak eta gorputzak gara festetan. Baina festa, *negarra begitik daraman tenpesta* izateaz gain, min eta negarrerako parada ere bada”. Izan ere, plazera eta aldarte ona ez den ezerk tokirik ez duen irlak izatetik oso urrun, jaiak jendartearen isla gordina dira: bertan birproduzitzen dira, besteak beste, sozietatearen nortasuna, ideologia eta balioak, baita botere harremanak ere. Azken aspektu hori, jaietan “dena libre” denaren aitzakiaz, biziagotu egiten da maiz. Eta eraso sexistak dira horren ondorio nabarmenetako bat.

Errealitate honen aurrean, asko dira jai parekideen aldeko lanketan murgilduta dabiltzanak. Lanketa horretan estrategia erabilienak eraso sexistei aurre egiteko protokoloak dira akaso, baina bada azken urteetan Euskal Herriko hainbat txokotara hedatu den beste tresna bat: Brigada Moreak.

Brigada Moreek mugimendu feministak aldarrikatzen duen autodefens-

tsa feminista jarrera dute oinarritzat. Lasarte-Oria, Ermua, Villabona-Amasa, Laudio, Pasai Antxo, Zaldibar, Antzuola, Irura, Durango eta Ondarroa zerrendatu ditzakegu, besteak beste, Brigada Moreak martxan jarri dituzten herrien artean. Kasuan kasuko herriaren errealitate egokitu ohi direnez, funtzionamendu ezberdinak izaten dituzte: jai giroan aktibo egoten dira batzuk, gerta daitekeen edozein erasoren aurrean; beste batzuk, adibidez, emakumei\* etxera itzultzeko babes eskaintzen diete. Tresna honen funtzionamenduaren gainean ideia bat egitea xede, Ondarroako esperientziaz jardun gara bertako mugimendu feministako kide diren Alaitz Monasterio eta Naroa Argoitiarekin.

### Ondarroan “Billurrak guaz jai!”

Aurreko urteetan jai parekideen alde egindako lanketarekin jarraitu eta urrats bat gehiago emateko helburuarekin sortu ziren iaz Brigada Moreak Ondarroan. Dinamika Udaleko Berdintasun Sailak eta Etxelila emakumeen etxeak bultzatu zuten hasiera batean,



baina Emaginen gidaritzapean indarkeria matxistaren gaineko formazioa jaso ostean, era autonomoan funtzionatzen hasi zen aurrerago Brigada Moreen talde motorra bilakatuko zena. Lehen urratsa nolako Brigada Moreak nahi zizuten zehaztea izan zen, eta lan hori egiteko beste herrietako esperientziak ardatz hartu zituztela adierazi dute Monasterio eta Argoitiak. Ostean, herriko jai nagusiak diren Andra Marietara begira beraien esku-hartzea planifikatzeari bide eman zioten.

Eraso sexisten aurrean erantzutea, erasoon gaineko informazioa ematea zein erasoen aurrean erasotuari babes eta arreta eskaintzea zehaztu zituzten brigada kideen eginkizun bezala. “Erreferente izan nahi genuen, erasorik emanez gero erasotuek nora jo izan zezaten, epaituak izateko beldur barik” diote Argoitia eta Monasteriok. Erreferentzia hori lortzera bidean, brigada kideak identifikatzea erraztu asmoz, zapi more bat jantzita eramatea erabaki zuten. “Billurrak guaz jai!” lemapean kalera ateratzeko eguna heldu zenerako, 80 pertsona ingururi banatua zioten zapi morea.



Zapia hainbeste jendek eraman arren, funtzioei dagokienez ezberdinak ziren bi talde eratu zituzten. Batetik, hamar bat emakumez osatutako talde motorra zegoen, formazioa jaso zutenez erasoan aurrean esku hartzeko “lanketa minimo bat” zeukatenak. Bestetik “gaiaren gainean kontzientzia” zeukaten herritarrak zeuden. Denak ere eman zitekeen edozein erasoan aurrean erne egon arren, erabakimena talde motorrak zeukala azaldu dute bi kideek.

Erasoen aurrean erantzuteko ardura hartzeaz gain, Andra Mari jaien argazki errealago bat egiteko xedez, jaietan ematen ziren erasoan gaineko erregistroa ere burutu zuten. Horretarako, emandako erasoekin erregistro orriak betetzeaz gain, salaketak egiteko buzoi eta posta elektronikoko helbide bat jarri zituzten emakumeen eskura. Salatzeko unean konfidentziasuna eta anonimotasuna bermatzea bilatu zuten baliabide hauekin, erasotuak zama isilpean eramateko daukan joerarekin apurto asmoz.

Bestetik, jaietan ematen diren eraso sexistak gaia sozializatu eta herriari

» **Jai esparruan emakumeak\* aske sentitzeko espazioen eraikuntzan eraso sexistak oztopo nagusiak direla ohartarazi nahi izan zuten Ondarroan**

ondorengo mezua helaraztea ere bilatu zutela azpimarratu dute: “denok nahi dugu ondo pasatu, pentsa dezagun nola lortu”. Jai esparruan emakumeak aske sentitzeko espazioen eraikuntzan eraso sexistak oztopo nagusiak direla ohartarazi nahi izan zuten, eta lortu zutelakoan daude. “Jendeak jakin-mina agertu zuen, Brigada Moreak zer ziren eta zein funtzio betetzen zuten jakin nahi zuten”, diote. “Hasieran, jai parekideak aldarrikatzeko zapia zelakoan, askok jantzi egin nahi zuten”, azaldu du Argoitiak, eta horrek aldarrikapen hutsa egiteko

zapia ez zela eta berau janzteak zer eskatzen zuen azaltzeko aukera luzatzen zuela gehitu. “Onerako zein txarrerako, eztabaida herriratu genuen eta kontzientziarioari bide eman genion”, bat datoz biak.

Esperientziaren balorazio positiboa egiten dute. Prozesu osoan zehar “beraien buruen zaintza” erdigunean jarri izanak esperientzia polita eragin zuelakoan daude. “Jaiak beste toki batetik bizi izanaren sentsazioa” eragin zion esperientziak Argoitiari, “biktima edo erasotuaren roletik emakume aktibo rola izatera pasa eta gauzak aldatzen aritzearen sentipena” azpimarratuz. Gainera, prozesuaren bitartez herriko emakume askok elkar ezagutu dutela eta saretu egin direla ziurtatu dute. “Eta horrek beste indar bat ematen dizu”, aitortu du Monasteriok.

**Aurrera begirako planteamendua**

Brigada More gisa jardun bitartean herrian sortzen ziren zenbait erresistentziaz ohartu ziren, diskurtso matxista legitimatzen duten zurrumurru matxistak kasu. Hala bada, aurreko hilabeteetan zurrumurruren kontrako lanketan aritu dira, hauek identifikatu eta desarmatzen asmatzeko. Ikasitakoa praktikara eraman beharrean ikusi dira oraintsu, herrian eman den bortxaketaren kontura zurrumurru pila sortu baitira. Zurrumurruek daukaten indarra eta eragiten duten kaltea gertutik ikusi duten honetan, “erasotzailea geroz eta gertukoagoa izan, kuestionamenduak orduan eta indartsuagoak” direla azpimarratu dute.

Herrian jazotako azken erasoari lehenasuna guztia eman diote, eta gauzak horrela, jaietan Brigada Moreak egingo dituzten ez dute erabaki oraindik. Edozelan ere, erasoaren aurrean erantzuten eta erasotuari babes helarazten dihardute, biak ere Brigada Moreen eginkizunak. Aurtengo Andra Marietan brigadak antolatu edo ez, autodefentsa feministak kaleak hartuko dituela usaindu daiteke Argoitiaren hitzetan: “Gertakari honekin mugimendu feminista bezala artikulatzen hasi gara herrian”. ■

\*Emakume izendapenak genero sistema bitarraz gairik gorpuz eta identitate askotarikoak barne hartzeko orduan mugak jartzen dituen arren, artikulu honetan aniztasun hori barne hartzeko erabiliko da.